

**EBAZPENA, JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ
AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEN BAITA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN GOI MAILAKO
KIROLARI BURUZKO DEKRETU PROIEKTUA EGITEKO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egokitzen du arau-xedapen orokor bat egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren goi mailako kirola arautzeko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen garapenean.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, xedapen arauemaile baten proiektua egin baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bidez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia jasoko da bertan.

Antzekoa dio Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua.

Kontsultak honako alderdi hauek aipatu behar ditu:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Hori dela eta, xedapen arauemailea egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragiten dien herritarrek eta gainerako erakundeek aukera izan dezaten parte hartzeko eta proposatzen den arauari ekarpenak egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Kontsulta publikoaren izapidea egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren goi mailako kirola arautzeko arau-xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea garatuz.

Bigarrena - Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, hamabost egun balioduneko epean helarazi ahal izango dituzte beren iritzia ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



ERANSKINA

Arauaren aurrekariak	- 203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa - 2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
Konpondu nahi diren arazoak	Eskumen titulu horren erabileran oinarrituta, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolari buruzkoa, eta haren 68. artikuluan interes publikokotzat jo zen goi mailako kirola, eta Eusko Jaurlaritzak behartu zuen kirol eremu horren antolamendua, sustapena eta kontrola bere gain hartzera Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean. Koherentzia instituzional horren ildotik, aipatutako legearen 4. artikuluko 2.c) idatz-zatiak ezarri zuen goi-mailako kirolaren antolamendu eta sustapen eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunei dagokiela, eta Lurralde Historikoetako Foru Organoei, berriz, kirolari gazteei, goi mailako kirolean sartzeko potentzialtasuna dutenei laguntza teknikoa eta ekonomikoa emateko eskumena esleitu zitzaion. Esparru juridiko horren garapen gisa, onartu zen 203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi mailako Kirolari buruzkoa, goi mailako kirolaren oinarritzko araubidea ezarri zuena. Hala ere, garrantzi handiko arrazoi juridiko eta funtzionalek agerian utzi dute dekretu hori ordezteko beharra. Alde batetik, 203/2010 dekretuak 14/1998 Legea garatzen zuen, eta hori indargabetua izan da; haren ordeze onartu zen 2023ko martxoaren 30eko 2/2023 Legea, Jarduera Fisiko eta Kirolari buruzkoa (aurrerantzean, LJFK). Lege horrek goi mailako kirolaren erregimen juridikoan berrikuntza esanguratsuak sartu ditu, eta gaiaren tratamendua sakondu du. LJFKren X. titulua, bere osotasunean goi mailako kirolari eskainia, eskumen-banaketaren argitasuna eta egituratze instituzionala bilatzen ditu, protagonismo nagusia Eusko Jaurlaritzari esleituaz, baina Lurralde Historikoetako Foru Organoen parte-hartzea ere aurreikusiz. Era berean, LJFK Basque Team Fundazioak gaur egun duen funtsezko eginkizuna jasotzen du, goi mailako kirolariei zuzendutako laguntza eta programen kudeaketa arloetan dihardutelako. Bestetik, berme juridiko berriak ezartzen dira emakume kirolarien eskubideak babesteko, bereziki haurdunaldia eta amatasun aldian; debekatzen da kirol jardueran etenaldia izateagatik dirulaguntzak haurdunaldian edo amatasun aldian lehiatu ez izanaren aitzakiarekin. Halaber, 203/2010 Dekretuaren aplikazioak eta urteetan zehar metatutako esperientziak agerian utzi dute arauaren zenbait hutsune, desorekak eta eguneratze premiak, bai edukian, bai testuinguru instituzionalean. Izan ere, organoen, erakundeen, titulazioen eta prestakuntza-zentroen izendapen ofizialetan aldaketa nabarmenak gertatu dira, eta, era berean, 203/2010 Dekretuan aipatutako lege eta arau xedapenetako hainbat artikulua jada indargabetuak edo aldatuak izan dira. Euskal Autonomia Erkidegoko araugintza teknikaren jarraibideei jarraituz, aldaketa sakonak edo sistematikoak egin behar direnean, ez da egokia aurreko dekretua partzialki aldatzea, baizik eta arau berri bat onartzea. Testuinguru horretan, egokitzeak jotzen da 203/2010 Dekretua osorik indargabetzea eta haren ordeze arau-xedapen berria ezartzea, goi mailako kirolaren araubidea LJFKren edukietara eta printzipio orokorretara egokituta. Ondorioz, beharrezkotzat jotzen da arau mailako xedapen berri eta integral baten onarpena, goi mailako kirolaren araubidea eguneratu eta sistematizatzeko, segurtasun juridikoa, eraginkortasun instituzionala eta koherentzia normatiboa bermatuz.

Onartzeko beharra eta egokitasuna	Goi-mailako Kirolari buruzko Dekretua egokitu egiten da 2023ko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen eduki berrietara, lege horrek jasotzen baititu nahitaez arauz garatu beharreko aldaketa eta eguneratzeak.
Arauaaren helburuak	Dekretu honen xedea da 2023ko martxoaren 30eko 2/2023 Legea, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena, arauz garatzea, goi-mailako kirolaren antolamenduari eta sustapenari dagokionez. Izan ere, Legearen 93. artikuluan xedatutakoaren arabera, goi-mailako kirola interes publikokotzat jotzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol garapenerako funtsezko faktorea baita, oinarri-mailako kirola sustatzeko pizgarri izateagatik eta estatuko eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan ordezkaritza funtzioa betetzeagatik. Zehazki, honako hauek arautzea du helburu: a) Goi mailako kirolaren antolamendua Euskal Autonomia Erkidegoan, Basque Team Fundazioaren laguntza teknikoarekin. b) Kirol Klubak, kirolariak, epaileak, teknikariak eta entrenatzaileak goi mailako edo, hala badagokio, errendimendu handiko mailan sailkatzeko irizpideak eta baldintzak, azken hori goi mailako kirolaren barne-mailarik apalena izanik. c) Goi-mailako kirolaren sustapena, lan arloan, funtzio publikoan, hezkuntzan, jarduera fisikoan eta kirol ekipamenduen arloan, baita horiekin lotura duten beste gai batzuetan ere, eskumen-eremuen arabera. d) Laguntza programak. e) Goi mailako kirolarientzako aholkularitza, ebaluazio eta kontrol zerbitzuak. f) Goi mailako kirol-zentroak. g) Goi mailako kirolerako ekipamendu-plana. h) Goi mailako kirolarien onurak. i) Goi mailako kirolarien estatutu juridikoa. j) Enplegu-baldintzak.
Bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.	Arau-proiektua egitea Administrazioaren nahitaezko jarduera dela uste da, eta horretara behartuta dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legearen erregelamendu-garapenean baitu jatorria eta justifikazioa, eta ez dago bestelako erregulazio-alternatibarik, erregelamendu-garapeneko dekretua onartzeaz gain.